

Motibo Garapena

ATSEDENA HARTUKO DUGU
OHIKO GAJETATIK ETA... EH,
LUDWIG VAN BEETHOVEN DA?

ZER MODUZ DOA DENA, **MAESTRO?**



EZ ONDO:
20 TXANPONEKO
APUSTU BAT EGIN DUT
RUDOLPH ARTXIDUKEAREKIN
ASTE HONETAN
500 KONPAS IDATZIKO
NITUELA ETA MOMENTUZ
LAU NOTA ZIZTRIN
BAKARRIK DITUT!

**JATORRIZKO
MOTIBOA**



LASAI, B. JAUNA... NOTA
HORIEK **MOTIBO** BEZALA
ERABILIKO DITUGU ETA BERTATIK
ABIATUTA MUSIKA **GEHIAGO**
SORTUKO DUGU. BEGIRA!

ERREPIKAPENA

MOTIBO BAT GARATZEKO
MODURIK SINPLEENA:
ERREPIKATUZ MUSIKA
BIKOITZA LORTZEN DA!



SEKUENTZIA

MOTIBOA ERREPIKATU BAINA
ALTUAGO EDO BAXUAGO. GAINONTZEKO
GUZTIAN BEZALA, BITARTEAK EZ DUTE
ZERTAN BERDIN-BERDINAK IZAN BEHAR.



INBERTSIOA

MOTIBOARI BUELTA EMAN:
JATORRIZKOA BEHERANTZ BADOA,
BUELTA EMANEZ, GORANTZ
GERATUKO LITZATEKE.



**BITARTEA TXIKITU
BITARTEA HANDITU**

IZENAK DIOEN BEZALA,
MOTIBOKO BITARTEAK TXIKITU
EDO HANDITZEAN DATZA.



**TXIKITZEA
HANDITZEA**

MOTIBOAREN ABIADURA ALDATZEA
ARINAGO (TXIKITZEA) EDO ASTIROAGO
(HANDITZEA) JOTZEKO.



**METAMORFOSI
ERRITMIKOA**

MOTIBOAREN EDOZEIN ERRITMO
ALDAKETA (TEMPOA ALDATZEAZ
BESTALDE, GOIAN AZALDU BEZALA)



IMITAZIOA

"OHIARTZUNA" BAILITZ, AHOTS DESBERDINEKIN
LORTUTAKO EFEKTUA (INSTRUMENTU DESBERDINAK EDO
ALTUERA DESBERDINA ERABILIZ PIANOAN)




JE JE... **253 KONPAS**
LORTU DITUGU...

ITXARON... **4/4-KO
KONPASEAN**
GAUDE, EZ?

UH, YEAH...

BA ERABILI DEZAGUN
2/4 BERE ORDEZ!



TXAKUR ZAHARRA ZARA
GERO... **506 KONPAS!**

ALAAA!
HARTZAZU,
RUDY!

BAINA NOLA...
EGIN DEZAGUN
**BIKOITZA EDO
EZER EZ!**

